

Kultur Agenda

Azaroa
Abendua
Agoitz
2021

📞 948 336 690

✉ cultura@aoiz.es

f Facebooken gaude




Agoizko Kultur Etxea
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako
Gobernua

 NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA

azaroa

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

abendua

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

azaroa

- 1 Musika.** XXVI. Nazioarteko Abesbatza Zikloa. Cantemus.
- 2 Hitzaldia.** Elikadura osasungarria.
- 5, 18, 21, 25, 28 Genero Indarkeriaren Aurkako Zikloa.**
- 6 Beste jarduera batzuk.** Pintxo-potea.
- 7 Liburu aurkezpena.** El reloj del tiempo.
- 19-2 Erakusketak.** Agoitz Hiria XVI. Argazki Lehiaketa.
- 21 Musika.** Mariano García Banda. Santa Cecilia kontzertua.

abendua

- 30-17 Sentsibilizazio-proiektua: Palestinako errefuxiatuak**
Erakusketa birtuala. Noor: Argiztaten duten emakumeak.
- 4 Beste jarduera batzuk.** Pintxo-potea.
- 9 Antzerkia.** Txapeldun bihotza. Tdiferencia.
- 12 El Zoko de Aoiz.** Azoka.
- 12 Sentsibilizazio-proiektua: Palestinako errefuxiatuak**
Itxiera hitzaldia solasaldia.
- 15 Sentsibilizazio-proiektua: Palestinako errefuxiatuak**
Escape room: Misio humanitarioa Gazan.
- 17, 18 Antzerkia.** ¡El milagro!
- 18 Musika.** Agoizko San Migel Abesbatza.
- 19 Musika.** Mariano García Banda. Eguberrietako kontzertua.
- 22 Musika.** Agoizko Musika Eskola. Eguberrietako kontzertua.
- 26 Antzerkia-Zirkoa.** Kimera. La Banda Teatro Circo.
- 23 Jaiotzak ikusteko ibilbidea**
- 24 Olentzero**
- 27, 28 Tailerra.** Eguberrietan Plastikutzen.

urtarrila

- 2 Ekialdeko Erregeen Pajea**
- 5 Kabalgata**



Genero Indarkeriaren Aurkako Zikloa

Azaroaren 5a, ostirala. 18:00. Kultur Etxea. Sarrera librea.

HITZALDIA



EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOARI AURRE EGITEA ETA PREBENTZIOA: MITOAK DESMUNTATUZ
Fatima Djarra Saniren eskutik

Azaroaren 18a, osteguna. 18:00-20:00. Kultur Etxea. Sarrera librea.

TAILERRA

¿Y tú ves porno?



GAZTE ETA PORNOARI BURUZKO TAILERRA. NOLA GALARAZI HORREN ONDORIOAK?

José Luis Garcíaen eskutik
(Psikologo klinikoa, sexologoa, hizlaria eta idazlea)
www.joseluisgarcia.net

Azaroaren 21a, igandea. 12:00. Nafarroa Beherea plaza.

EKITALDIA



AGOITZEN EZ DUGU ERASO SEXISTARIK ONARTZEN

Azaroaren 25a, osteguna. 19:00. Udaletxeko plaza.

ELKARRETARATZEA

EMAKUMEEN AURKAKO BORTIZKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA



Azaroaren 28a, igandea. 18:00. Kultur Etxea. 6€

ANTZERKIA



JUGANDO A LAS DAMAS

Bi emakume eszenan.

Fotos, hormonas y Lexatín... eta Tirarse al monte bakarriketen muintetik sortu da antzerki-proposamen hau. Egoera ezberdin, erreal eta dibertigarri bezain zintzoetan dauden bi emakumeren testigantzak biltzen ditu.



AYUNTAMIENTO DE AOIZ
AGOIZKO UDALA

ÁREA DE IGUALDAD
BERONGIGINA ARLOA
ÁREA DE CULTURA
KULTURARLOA



Infancia y Juventud
Gobernador de Navarra
GOBERNADORA INFANTIL Y JUVENIL DE NAVARRA
MINISTERIO DE POLÍTICA SOCIAL Y JUSTICIA

Erakusketak

AGOITZ HIRIA XVI. ARGAZKI LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO ARGAZKIAK



19-2 azaroa-abendua
Areto Nagusia

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

Herri bozketak:

azaroaren 6tik 14ra, Agoizko Udalaren webgunean:
www.agoitz.eus

Kultur Etxean ordenagailu bat jarriko da, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.

Inaugurazioa eta sari-banaketa:

Azaroaren 19an | ostirala | 18:30

Musika

XXVI. NAZIOARTEKO ABESBATZA ZIKLOA CANTEMUS, CHILDREN'S CHOIR (HUNGRÍA)



1 azaroa
astelehena
19:00 Kultur Etxea. 6€

Nyíregyházako Zoltán Kodály Lehen Hezkuntzako Eskolako abesbatzen artean, Cantemus sari gehien jaso dituen da. 1975tik, abesbatzak Gregoriano, Berpizkunde, Erromantizismo eta aldi garaikideko musika-lan ederrez osatu du bere errepertorioa. Hungariako musikagile ezagunen lanak estreinak aldiz abesteko ohorea izaten dute maiz. Hungariako abesbatza musikaren arteari eginiko ekarpenei esker ona emanez, bi sari jaso dituzte: 1989an "Foundation for Hungarian Arts" eta 1993an "Bartók Béla – Pásztory Ditta Prize".

1978tik gaur egun arte, 20 Lehenengo sari baino gehiago eta zenbait Grand Prix (Sari Nagusia) jaso dituzte. Denak aipatu beharrea azkenekoak azaltzen dizkizuegu:

Lehenengo Saria, 2. Saria, 3. Saria eta Sari Berezia, Gorizia – Italian (2003); Lehenengo Saria, Grand Prix eta Zuzendari Sari Berezia, Arezzo-Italian (2005); Lehenengo Saria, Arezzo-Italian (2009); Lehenengo Saria eta Grand Prix, Tolosan 2010ean.

Antolatzailea:



Laguntzailea:



MARIANO GARCÍA BANDA SANTA CECILIA KONTZERTUA



21 azaroa
igandea. 60'
19:00 Kultur Etxea. 4€

AGOIZKO SAN MIGEL ABESBATZA EGUBERRIETAKO KONTZERTUA



18 abendua
larunbata
20:30 Eliza
Sarrera librea. 60'

Antolatzailea:



Babeslea:



MARIANO GARCÍA BANDA EGUBERRIETAKO KONTZERTUA



19 abendua
igandea
19:00 Kultur Etxea
Sarrera librea. 75'

AGOIZKO MUSIKA ESKOLA EGUBERRIETAKO KONTZERTUA



22 abendua
asteazkena
18:00 Kultur Etxea
Sarrera librea. 75'

Antolatzailea:



TXAPELDUN BIHOTZA

TDIFERENCIA



9 abendua
osteguna
19:00 Kultur Etxea. 5 €

Euskaraz
Publiko heldua
Iraupena: 60'



Ainhoa Ruiz aktore nafarrak interpretatutako umorezko bakarrizketa honek maitasun erromantikoaren mitoak aztertzen ditu, hala nola, laranja erdiaren mitoa, minaren mitoa, esklusibotasuna eta abar luze bat. Gure protagonistak bere bizitzaren ibilbidea egingo du boxeo ring batean sartuta, eta barrez eta konplizitatez KO utziko gaitu laugarren roundean.

“Ezer ez da amaitzen amaitzen dela sentitzen ez duzun arte” eta berdintasunaren aldeko borrokan asko dago egiteko.

¡EL MILAGRO!

ANTZERKI AMATEURRA



17, 18 abendua
Kultur Etxea. 5€
22:00 (ostirala) / **19:00** (larunbata)

Publiko guztiak
Iraupena: 90'

Erretiratuen, Alargunen eta Agoizko Pentsiodunen Plataformak, Irati Antzerki Taldearen zuzendaritzapean, antzerki tailer bat egin dute gogo eta ilusio handiarekin. 2 zuzendari konprometitu, gaztetan egindako hainbat lan dituzten aktore batzuek beren ilusioari berriro helduz eta parte hartzaile berriek antzezlan hau aurkezten dute... Mirari hori lortuko da?

KIMERA

LA BANDA TEATRO CIRCO



26 abendua
igandea
19:00 Kultur Etxea. 6€

Zirku Garaikidea
Iraupena: 50'

Kimera: Egiazkoa edo egingarria den ilusioa

Zamalanetako kaia. Lanean, pasaeran edo bizitza hobearen bila iristen diren pertsonak.

Kimerak egungo gizarteari begiratzen dio, pertsonak handi egiten dituzten gauza txiki horiek zein hauskorrak diren erakutsi nahian. Bidenabar, globala tokikotik alda daitekeela ere erakusten digu.

Pentsarazten digu zergatik joaten ote den hainbeste jende, dena atzean utzita, leku ezezagun, babesgabe eta harremanik gabeko batera; non, hori bai, etorkizuna nahiz zalantzazkoa eta oso iluna izan, beti izanen baita itxaropentsuagoa jatorrizko tokian baino.

Ikuskizunak dibertigarria eta, aldi berean, hunkigarria izan nahi du. Bertan, begirada, gorputza, eta trebezia elkartzen dira unibertso berezia eraikitzeko zirrarez beteriko mundu soinuadun batean. Lan hau, zirkoaren hizkuntza baliatuz, “Linh jaunaren biloba” -ren antzezpen oso askea da.

Eszena-zuzendaritza: Joserra Martinez.

Interpreteak: Izaskun Lasarte, Txetxu Collado eta Nano Nepal (zirkoa).
Jorge Cordon, música zuzenean.

Eguberriak



Abenduaren 23a, osteguna. 19:00. San Migel Eliza

AGOIZKO JAIOTZAGILEAK

Ibilbidea herrian jarritako jaiotzak ikusteko, haiekin batera Bilaketako Bokal eta Instrumental Taldea izango da.

Antolatzailea: Agoizko Jaiotzagileen Elkarte

Abenduaren 24a, ostirala. 18:30

OLENTZERO

Gabon gauean, Olentzero Agoizko karriketan barna ibiliko da.

Urtarrilaren 2a, igandea. 18:00. San Migel Eliza

EKIALDEKO ERREGEEN PAJEA

Agoizko haurren eskutitzak hartuko ditu.

Urtarrilaren 5a, asteazkena. 19:00. KABALGATA

EKIALDEKO ERREGE MAGOAK

Ohiko ibilbidea: Hermanitas de los Pobres de Maqueitía Zahar Goitzean hasi eta Frontoian bukatuko da.

Asociación Cabalgata Aoiz- Agoizko Kabalgata Elkarte

itsulapikoak jarriko ditu herriko dendatan, elkartearen aldeko dirua lortzeko.

Tailerrak

EUSKARAZKO ARTE PLASTIKOEN TAILERRA "EGUBERRIETAN PLASTIKATZEN "

Abenduaren 27a eta 28a | astelehena eta asteartea | Kultur Etxea



Irakaslea: Patxi Huarte

Ordutegia: A taldea: 9:30-11:15 (8-12 urte bitartekoak)
B taldea: 11:30-13:15 (5-7 urte bitartekoak)

Matrikula: 10€ (materiala barne)

Covid-19 neurriak. Plaza mugatuak.

Izen-emateak: Abenduaren 13tik 18ra- cultura@aoiz.es -
Korreo bidali izen-abizenak, adina eta telefonoa jarritz.

Izen-ematekoa baieztatutakoan, zenbatekoa Rural Kutxan sartu:
ES83 3008 0233 1531 3763 3925.



Beste Jarduera batzuk



HITZALDIA:

ELIKADURA OSASUNGARRIA

Azaroaren 2a | asteartea | 12:00 | Kultur Etxea

Hizlaria: **Cecilia Gómez Vidés**, Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua
Antolatzailea: **Agoizko Erretiratuen, Alargunen eta Pentsiodunen Plataforma**
Laguntzailea:  

PINTXO-POTE

pintxopotè

Azaroaren 6a eta abenduaren 4a | larunbata | 19:00

LIBURU AURKEZPENA:

Azaroaren 7a | igandea | 19:00 | Kultur Etxea



EL RELOJ DEL TIEMPO

JONATHAN MARTÍNEZ SÁNCHEZ

"El Reloj del tiempo" Jairo izeneko pertsoniaz ari da. Bere haurtzaroko erloju baten bidez, denboran atzera bidaiatu dezake eta bere bizitzako alderdiak alda ditzake. Horrek dilema bat ere badakarkio: ondo al dago bidaia horiek bere onerako aprobetxatzea? bere ekintzek eraginik izango dute? Zenbat denbora egon daiteke bidaia horiek egiten?

Jonathan Martínez Sánchez Valentzian jaio zen 1988. urtean, irakurtzeko eta idazteko zaletasuna dauka. Laura Gallegoren "donde los árboles cantan" liburuak piztu zion zaletasuna. Bere liburua idaztea eta salgai jartzea betetako ametsa izan da. Erdi Aroko gaiak, historikoak eta fantasiakoak atsegin ditu, baina ez du beste irakurketa mota bat bazterten.

PALESTINAKO ERREFUXIATUEI

BURUZKO SENSIBILIZAZIO-PROIEKTUA



UNRWA Nafarroako (Ekialde Hurbileko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) Nafarroako Gobernuak Garapenerako Hezkuntzara eta Sentsibilizazio Ekintzetara bideratutako partidaren barruan kokatzen den proiektu berri hau aurkeztu du.

Proiektu hau Nafarroako herritar globalak, informatuak, kritikoak, solidarioak eta Giza Eskubideekiko eta Genero berdintasunarekiko konprometituak sortzen laguntzeko sortu da.

Proiektuan sentsibilizazio jarduerak aberasgarri eta askotarikoak dira, oso publiko zabalari zuzenduak:

ERAKUSKETA BIRTUALA:

"NOOR: ARGIZTATZEN DUTEN EMAKUMEAK"

Azaroaren 30etik abenduaren 17ra | Kultur Etxeko Atondoa

ITXIERA HITZALDIA SOLASALDIA

Abenduaren 12a | igandea | 19:00 | Kultur Etxea

Palestina errefuxiatutako pertsona baten testigantza izango dugu.

ESCAPE ROOM: "MISIO HUMANITARIOA GAZAN"

Abenduaren 15a | asteazkena | 18:00; 19:30 (bi saio)

Izen emateak: cultura@aoiz.es / 600445238



EL ZOKO DE AOIZ

Abenduaren 12a | igandea | 10:00-14:30

Sarreraren salmenta:

• Interneten: www.aoiz.es

***Oharra:** Sarrerak Internet bidez erosi ezin dituenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketa zabalik dagoen orduategian: Asteartetik larunbatera, 18:00etatik 20:00era.

• Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago (sarrerarik gelditzen bada)

*Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

Arau orokorrak:

- Ezin izanen da aretoan sartu, funtzioa hasita baldin badago.
- Sakelako telefonoak edo/eta mota guztietako alarma edo seinaleak itzaliko dira, Kultur Etxera sartuta.
- Isilik egon, aktoreek arreta gal ez dezaten eta beste ikusleekiko errespetuagatik.
- 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin agertuko dira, edozein dela antolatutako aktibitatea.
- Ezin da filmatu, grabatu edo argazkirik atera, Kultur Etxeak espresuki baimena eman ez badizu.
- Ikuskizuna edo aktibitatea garatzen den bitartean, libre egonen dira sarrerak, irteerak eta pasilloak, eta ez da han inolako elementurik utziko.
- Ezin da Kultur Etxera sartu animalia, bizikleta edo patinekin batera.
- Kultur Etxeko aretoetan ezingo da jan edo edan, Kultur Arloak egoki ikusten dituen zenbait egoeratan izan ezik. Modu berean, erretzea ere debekatuta dago.
- Programazioan zerbait gertatuz gero edo aldaketarik emanez gero, jakitera emanen da ohiko hedabideen bidez.
- Kultur Etxean dauden langileek esandakoari jarraituko zaio beti.
- Agoizko Udalak adierazitako arauak errespetatzen ez dituzten pertsonak onartzeko edo baztertzeko eskubidea dauka.

COVID-19 SEGURTASUN-NEURRIAK

Agoizko Kultur Etxean, osasun-agintarien gomendioak eta gidak jarraituz, babes-neurriak ezarri ditugu gure zerbitzu eta instalazioetan, koronabirusarekiko esposizioaren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Neurriak etengabe berrikusten ari dira, COVID-19ri buruz indarrean dauden araudiak eguneratzearen eta egokitzearen arabera.

1. Instalazioak garbitzea, desinfektatzea eta mantentzea

- Ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondoren, erabiliko diren instalazioak garbitu eta desinfektatuko dira.
- Erabiltzaileek erabil ditzaketen espazio guztiak egunero garbituko dira, edo eta erabilera-maiztasunaren eta jende-fluxuen arabera.
- Gel-banagailu hidroalkoholikoak behar bezala seinaleztatuta jarriko dira.

2. Instalazioetara sarbideak eta zirkulazioak

- Publiko-fluxuak zuzentzeko behar diren bitartekoak artikulatuko dira. Sarrera mailakatua izango da, eta segurtasun-tarte egokiak gordeko dira.
- Txarteldegian zein aretoetarako sarbideetan segurtasun-distantzia mantentzen dela zainduko da, lurrian argi eta garbi identifika daitezkeen markak txertatuz.

3. Norberaren osasuna eta higiena

- Kultur Etxean eta antolatutako ikuskizunetan derrigorrezkoa izango da maskarak erabiltzea.
- Gel-hidroalkoholikoa aretoaren sarreran egongo da.